


BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 225. alea - 2018ko urtarrila



**Gure hizkuntzaren historia
soziala, liburu batean jaso**



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA




MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitadeen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2/05/049
NIVEL 2



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Begoña gure bihotzetan”, “Debako Krosaren 50. urteurrena. Laguntzerik bai?”...

08

ALBISTEAK

Debako Udala, Kasinoaren etorkizunaz; Energiaren Behatokia...

10

LITERATURA

Literatur lanak aitona-amonentzat; Irakurketa Kluba udal liburutegian

12

IRUDI GALERIA

Eguberriei eta urte hasierari errepassoa, iruditan

14

B. GAZTEA

Hitzaldi eta tailer ezberdinak Mendatan, elkarrizketa Kimetz Etxaberi, inkesta...

Aldizkariko kolaboratzaileen sarea sendotzen

Bazkide/irakurle estimatuak, Konturatuko zaretenez, ale honetan berrikuntza txiki bat sartu dugu.

Kolaboratzaileen atalari beste forma bat eman diogu eta hemendik aurrera eredu hori jarraitzeko asmoa daukagu. Bestalde, ale bakoitzean, bi edo hiru zutabe argitaratuko dira; horrela herritar gehiagoren parte-hartzea bultzatu nahi

da, iritzi testu hauek aldizkaria aberasten lagunduko dutelakoan.

Idea honen sorburua Zuhatza elkar-terko Komunikazio Taldetik dator, hain zuzen, Deban 2016ko udazkenean egin genuen Hausnarketa Saioetatik sortutako taldeetako batetik. Ordutik hona, *Berriketan* aldizkariaren kolaboratzaile sarea handitzen saiatu gara eta herriko

taldeekin ere jarri gara harremanetan berriak lortzeko. Pixkanaka-pixkanaka badoa bere fruituak ematen eta herritarren aldetik jasotako erantzuna eskertzeko ere aprobetxatu nahiko genituzke lerro hauek.

Ondo izan.

Zuhatza Euskara Elkarteko
Komunikazio Taldea

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

Kolaboratzaile berezia:

Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:

Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura:

Lukax Dorronsoro eta Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia:

Erredakzio taldea

Publizitatea:

Joseba Escudero eta Koldo Aperribai

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Tirada:

1.400 ale

Maiztasuna:

Hilabetekaria

Inprimategia:

Euskalinpri

Lege goidailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 1.500 karaktere izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK




Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

Begoña gure bihotzetan

*Bihotza zabal,
alai irria,
Begoña andereñoa,
abizenez Andonegi.
Haurren maitale,
haurren maitea,
herrian estimatua.
Musika, kantu, antzerki,
txikien jolaskide,
irakasleen eredu.*

*Behin...,
bekaitzez,
ahalduntxoek, arrotza buru,
gaitzetsia,
ikastolatik erauzia,
Txarorekin batera.*

*Maite zintuen herri honek
negar egin du
zu galtzean.
Hala ere, bizi zara
gure bihotzetan.*



L.D. eta J.L.A.

Datorren urtean, erreginak

Errege Magoak (aztiak) ez ziren Pertiako erregeak, ezta Indiakoak ere; baizik eta izarren ibiliaren berri zekien jende aditua eta, ziurrenik, beste jardun batzuetan ere trebeak. Garai hartako jakintsuak ziren.

Zeintzuk izan ziren Euskal Herrian gure jakintsuak? Zeintzuk gurean senda-belarretan trebe, emakumeen zaintzaile eta emagin?

Sorginak. **Sorgin sor-eragin hitzetik dator, emagin esan nahi du.** Agian erditze unea baino lehen, emakume aztiak, sorginak hurbildu ziren Mariari laguntzera. Gurean emakume azti-sorginak izan baditugu, zergatik datorren urteko kabalgatan ez atera erregina-sorginak errege-magoen orde?

Testamentu Berriak behin bakarrik eta labur aipatzen ditu sortaldeko jakintsuak -maskulino generikoa darabilen arren-; ez dio, noski, erregeak zirenik. Hauxe da "Ekialdeko jakintsu batzuek Jesus gurtu" izenburua daraman pasarteak dioen bakarra: Sortaldeko jakintsu batzuk azaldu zirela Jerusalem galdetza, ea non zegoen Juduen Errege jaioberria. Zegoen etxera sarturik, hau-

rra gurtu, kutxatilik zabaldu eta opariak eskaini zizkieten: urrea, intsentsua eta mirra.

Historian zehar 60 izateraino heldu ziren Magoak eta Antzinatean hamabi izan ohi ziren gehienetan; baina, ez ziren erregeak eta ez zuten izenik ere Erdi Aroan sartu eta ondo geroagora arte. XII. mendean egin ziren Melxor, Gaspar eta Baltasar izenez ezagun eta, XV. mendean ondotoxoa sartu eta gerora arte ez zen hauen artean batere beltzik.

Errege irudia Jesusen jaiotzan sinesteari garrantzia emateko sortutako ezaugarri bat besterik ez da. Eta erregeen koloreekin Jesusen irudiari neurri unibertsala ematea nahi da, guztiok salbatzera baitator.

Gure Kabalgata emakume erreginez osatzearen aurka ez dago ez legezko ez teologiazko oinarririk, ez Eliza katolikoa-aren dogmarik; ez legoke tradizioaren aurka eta ez lituzke Gabonak itxuragabekituko, **eskuazabal izateko garaia** baita hau.

Sortaldetik etorri ziren Errege Magoak Belena. Erromako inperioak bere mugak ondo zainduak zeuzkan arren, Errege Magoak arazo handirik

gabe heldu ziren, itxuraz, Belengo Portalera. Inozente Santuen erailketa Jesusen jaioteguna baino geroago gertatu zen. Gaur egun Belena iritsi nahi balute, ez lukete erraza bisita honetara zerk erakarri dituen azaltzea; zaila litzaieke Palestina itxuran sartua daukan harresia gurutzatzea. Eta, azkenean, opariekin urtarrilaren 5erako gururaino etortzekotan, pateretan etorri beharko lukete; Europako langak ilegalki gurutzatu eta, Archidonako espetxean edo Arrotzentzako Barnetegietan amaituko lukete. **Ongi etorri errefuxiatuak.**

Jose Luis Albizu



Debako Krosaren 50. urteurrena. Laguntzerik bai?



Datorren apirilaren 21ean, Anes Arrinda Haur Krosaren 50. edizioa burutuko da. Berrogeita hamargarrena izanik, ekintza bereziak burutu nahiko genituzke, krosak izan duen ibilbidea gogoratuz.

Pentsatzen dugu Debako hainbat etxetan 50 urte hauetan izan diren krosak argazkiak egongo direla. Azken urteotan kamera digitalak direla eta argazki ugari izango dira, baina guri bereziki hasierako urteetako argazkiak eta dokumentazioa interesatzen zaizkigu, ibilbide bat egin ahal izateko.

Ez daukagu erreferentzia askorik, guk antolaketaren ardura hartu

genuenean dominek eman ziguten krosaren adinaren pista. Aurretik nolakoa izan zen, noiz sortu zen, nola... ez dakigu. Gustatuko litzaiguke zerbait gehiago jakitea. Eta pentsatzen dugu zuetako familia askok izango duzuela zer kontatu.

Zuek emandako informazioarekin eta dokumentazioarekin erakusketa bat antolatzea da gure asmoa. Laguntzerik bai?

Krosaren hasieraren inguruko informazioa baduzue, edota taldean ateratako argazkiren bat, guri helaraztea nahiko genuke. Argazkiak formatu digitalean eskuratu nahiko genituzke.

Zuen etxeetan digitalizatzeko aukerarik ez bazenute, jar zaitezte harremanetan gurekin eta emango dizuegu bidea hori egiteko.

Aldez aurretik eskerrak emanaz, espero dugu zuen laguntzarekin krosaren historia txukun bat egitea.

Harremanetarako:

E-maila: debakrossa@hotmail.com

Webgunea: <http://anesarrindahaurkrossa.weebly.com/>

Telefonoa: 655734487 (Mari Seara)

*Debako Anes Arrinda
Haur Krosaren Antolaketa Taldea*

Mus garaia da! Badator Euskal Herriko mus txapelketa

Arrano eta herriko tabernen egoeren gaia oraindik ere kolokan egonik ere -Arranoren desjabetzearen sententzia eta itxiera agindua emanak daude, ez dakiguna da noiz etorriko diren ixtera-, ezin egon gintezkeen kultur talde gisa geldirik. Debarren egunean, urtero legez, erraldoiei bazkaltzen eman genien, Deba Reus topaketan gure laguntza eskaini genuen... Eta negua iristear zela, abenduaren 15ean, ostiralez, Debako Arrano elkartearen, Gabonen inguruan antolatu ohi dugun mus txapelketa antolatu genuen. Azken urteetan partaidetza gutxitu izan bazen ere, aurtengoan 18 bikotek parte hartu zuten. Antolatzaileok bagenuen ilusiorik; eta, kartelak kalean eta sare sozialetan jiraka eta bueltaka aritzeak ere izango du errurik eta sari erakargarriak jartzeak ere, noski... Kontuak kontu, gaueko 22:10erako jada 18 bikotek osatutako txapelketari hasiera eman genion. Keinu, gezur, izerdi eta abarren ondoren, bi bikote sailkatu ziren finalera.



Bitartean, betiko kontuak: kartarik gabe ezin dela jokatu, zorte txarra... Finalera, Mikel Horcajada eta Pablo Fernandez alde batetik, eta Josu Indamendi eta Iñaxio Larrañaga iritsi ziren. Bigarren hauek izan ziren garaile. Giro ederrean igaro genuen ostiral gauean hasi eta larunbatean amaitu zen saioa.

Bertaratzeko aukerarik izan ez zuenarentzat, urtarilaren 26an, ostiralez baita ere, eta oraingoan, **Euskal Herriko mus txapelketako** Debako kanporaketa antolatu dugu. Izen-emate ordua 22:00etan



izango da eta bikote bakoitzak 20 euro jarri beharko ditu. Bikote kopuruaren arabera, herriko ordezkari izango diren bikote kopurua handiagoa izango da. Beraz, animatu. Parte-hartze gehiago, ordezkari gehiago. Garaileek ardoa, txuletak eta gazta izango dute sari eta Gipuzkoako kanporaketara joateko aukera (informazio gehiago nahi duenak ehmus.eus webgunera jo dezala).

Arrano Libre! Galarraga Kalera!

Debako Arrano elkarte

ANIMADEBA JAIALDIAREN BALORAZIOA: AITOR OÑEDERRA

“Animadeba zinemaldiaren ediziorik arrakastatsuen izan dugu”



Pasa den abenduan Animadeba Debako Animazio Zinemaldiaren 10. edizioa ospatu dugu, eta balorazio orokorra egiterakoan guztietan arrakastatsuen izan dela aipatu behar dugu.

Aurten zenbait berrikuntza izan ditugu: aretoaren aldaketa, adibidez. Igandeetako zine emanaldien aitzakian, Kultur Elkartera bueltatzearen apustua egin genuen. Bertan bideo eta soinu-ekipo berria jartzeak konbentzitu gintuen. Honez gain, Kultur Elkartean eraikina herri erdian izanik, uste dugu jendeak errazago jotzen duela bertara Agirre jauregira baino.

Juanba Berasategiren azken filma, *Nur eta Herensugearen Tenplua*, izan zen jende gehien bildu zuena, aretoa gainezka jarriaz. Toti Martinez de Lezearen liburu arrakastatsuan oinarritutako filmak gazte asko katigatuta dauzka.

Helduentzako luzemetraiei dagokienez, *Dortoka Gorria* filmak ikusleak erabat hunkitu zituen, Michaël Dudok Wit-ek

zuzendutako filmak, mutua izanik ere, aspertzeko unerik gabe utzi zituen. Laurent Perez Del Mar-ek sortua den soinu banda ere azpimarratzekoa da lan honetan.

Berrikuntzen artean dago Maxi Tabernan Gortina Lehiaketaren emanaldia egin izana ere. Gortina lehiaketa herrira hurbiltzea izan da aldaketa honen helburua. Bertan publikoaren saria erabaki zen; “Nola eztaola ezer” gortinak lortu du publikoaren saria. Animadeba 2018 gortina saria, berriz, Madril aldera joan zaigu. “30 segundos, 8 historias” izena du lanak eta Daniel León Ramírez Gurruchaga-ren lan taldeak zuzendu du.

Kote Camacho zine zuzendariak animazio tailerra eskaini zuen. 10. urteurrena ospatzeko berak egindako gortina eraikitzearen sekretuak partekatu zituen. Animazio munduan erabat murgilduta dagoen jendea eta honekin zerikusirik ez duena bildu zen bertan.

Zokoan ospatu zen amaiera ekitaldia.

Gortina lehiaketaren sari banaketaz gain, Unclose taldearen emanaldi aparta eta ToRMenTo Dj izan genituen gaua giroten.

Agirre jauregian, “Muittu Euskal Herriko Animazioaren Erakusketa” izan dugu bi astez. Bertan, Euskal Herrian egin diren marrazki bizidunen bilduma ikusgai izan da, animazio teknika eta teknologiaren bilakaera ezagutzeko aukera izan dugu.

Aldaketak etorkizunean

Datorren urteari begira aldaketa handiak datoz. Jaialdia laburmetrai lehiaketa internazionala bilakatzera helduko da eta, honekin batera, estatuko nahiz munduko animazio zine zuzendarien elkargune izan nahi du Animadebak abenduan. Orain arte bezala, zine emanaldiez gain, tailer, erakusketa, musika emanaldi edo eta animazioarekin zerikusia duen beste zenbait diziplina ekarriko ditu jaialdiak. Jendearen parte-hartzea eta boluntarioen laguntza beharko ditugu hau guztia aurrera eramateko.

Aitzuri Abesbatzak hirugarren postua lortu du Erreterriako Gabon Abesti Sariketan

Abenduaren 30ean jokatu zen Erreterriako Gabon Abesti Sariketa probintzialaren 71. edizioa eta hirugarren saria Debara ekarri zuen Aitzuri Abesbatzak.

Lehiaketako lehen bi sariak

Erreterrian bertan gelditu ziren: Adaxka abesbatza nagusitu zen, eta Gazte Kemena taldea sailkatu zen bigarren postuan. Horien atzetik gelditu zen Debako Aitzuri, 400 euroko hirugarren saria lortuta. Ander Simalen zuzendaritzapean,

Aita Donostiaren “Oi Bethlehem” eta Jesus Guridiren “Hator, hator mutil etxera” kantak eskaini zituzten Aitzuriko kideek.

Ereintza Elkarrekin antolatzen du Erreterriako lehiaketa, Gipuzkoako Abesbatzen federazioaren laguntzarekin.

Nuria Costaren eta Ane Castro debarraren proiektua saritu dute Samsung Ego Innovation Project lehiaketan

Zer izeneko firmak irabazi du Samsung EGO Innovation Project lehiaketa, alegia, Samsung konpainiak moda kolekzioetan berrikuntza teknologikoa saritzeko antolatzen duen ekimena.

Ana Castro Sudupe debarrak eta Nuria Costa Ginjaumek osatzen dute Zer

firma eta euren proposamenaren oinarrian dagoen ideia zera da: “teknologiara egokitzen den janzkera, eta ez alderantziz”. CONECT3D izenburuko proiektua da euren, “proposamen futurista” bat: 3D inpresioaren bitartez ekoiztutako materiala erabiliz, hamar look dauzka

oinarri. “Moda ekoizpen arduratsu” baten aldeko apustuarekin dator bikotea.

10.000 euro lortu ditu ZER firmak aipatutako proiektua garatzeko. Gainera, urtarrilaren 29an Madrilgo Fashion Week astearen baitan talentu gazteen jardunaldia inauguratuko du euren lan sarituak.

“Debako euskararen historia soziala” ikerketa lana plazaratu dute

Lan osoa www.deba.eus atarian irakur daiteke



AINARA SEDANO

Txin-txin!

Baietz esaten duen jendea dut atsegin. Plan bat proposatzean, irribarrez eta ilusioz bat-batean apuntatzen direnak. Plan horiek edo beste batzuek aurrera ateratzeko lan egiteko prest daudenak, gogotsu, umorez, borondatez... Beraien denbora gogo-betez ematen dutenak. Bai kroketei eta bai azeitu-nei baiezkoa esaten dietenak; ardoa edo “vermut”-a, bokadilloa edo plater konbinatua... bata edo bestea! Pelikula bat edo beste gustura ikusiko duena, eta ia guztiarekin disfrutatzen duena. Gauzak errazten dituzten gizaki zoragarriak!

Gogoko dut baietz esaten duen jendea. Taldea elkartzeko deialdiak egiten dituenak. Afaltzera pertsona bat gehiago badator, berri hau beso zabalik jasoko duena eta artaldearen parte sentiarazten saiatuko dena. Inor kanpo lagako ez duena, eta pozez afaria eta elkarrizketa partekatuko dituenak, sukaldatzeko prest dagoena, bere pastelik edo zoparik ederrena besteontzat prestatuko duena.

Nire bizitzan nahi ditut baietz esaten duten pertsonak... eta beharrezkoa denean ezetz ere esaten dakitenak. Eta ezetza beraiek jasotzen dutenean ezezko hau ere onartzen dakitenak. Beraien hitzak, bihotza eta aurpegiak bat datozenak; gauza bera diotenak. Bene-benetan sinesten ditudanak. Egi-egiazkoak.

Gustuko ditut baietz esaten duten pertsonak. Bizitzarekin apasionatuak, super-ausartak, denbora aprobetxatzen dutenak, kuriosoak, irekiak, probatzeko gogoak daukatenak, pasioz maitatzen dutenak eta barre erraza daukatenak. Momentu onetan gozaten dutenak, eta txarretan gogor borrokatzen dutenak.

Urte berriarekin, bizitzeagatik txin-txin! Eta esan baietz!

Historiaurretik hasi eta XX. mendera arte Deban izan den bilakaera soziolinguistikoa aztertu dute Iñigo Ramirez de Okariz eta Nekane Goikoetxea HUHEZIKo irakasleek eta ikerketaren emaitzak liburu batean jaso dituzte, “Debako euskararen historia soziala” izenburupean.

Eguberrien atarian aurkeztu zen liburua, Agirre jauregian. Debako Udalaren eta HUHEZIKren artean 2015eko urtarrilean sinatutako hitzarmenak bi urteko iraupena eta 10.000 euroko diru ekarpena aurreikusi zuen ikerketarako. Lana amaituta, testuaren zuzenketek, maketazio lanek eta argitalpenak beste 5.000 euro inguruko kostua izan dute.

Aurkezpenean, Udaleko Euskara batzordeburu Ane Egidazuk adierazi zuen Deban bertan beti izan dela herrian euskaraz gutxi egiten den ustea, baina, neurri berean, errealtate hori ulertzeko ezinbestekoa iruditzen zaio Debaren historia soziolinguistikoa ulertzea, lekuan lekuko gertakariak hizkuntzan eragin handia baitute. “Debarrok daukagun autoirudia herri erdaldunarena da, euskara albo batera laga duen herriarena. Baina askotan horrelako baieztapenak borobilegiak izaten dira, ertzik gabeak eta errealtateak gehienetan borobilak baino gehiago poliedrikoak izan ohi dira, ertz askokoak”. Hala, uste horretatik abiatuta eta errealtate linguistikoa ulertzeko, herriaren historia zein den ezagutzeari garrantzitsua dela deritzo.

Testuinguru horretan kokatzen da, beraz, liburu aurkeztu berria. Ramirez de Okariz egileak adierazi zuenez, liburuan euskarak izan duen presentzia jasotzen da eta hori egiteko bi informazio iturritara jo du: batetik, artxiboetara, aktetara... eta, bestetik, beste idazle batzuek aurrez argitaratutako liburuetara. 700 erreferentzia inguru jaso ditu eta horrek artxiboko ehunka testu aztertu dituela esan nahi du, euskarari buruzko aipuak nahiko bakanak baitira. Ikerketaren datu esanguratsuenak azaldu zituen irakasleak: historia soziala, ardatz metodologikoa, hipotesiak, gertaera historiko nagusienak eta hizkuntza.

Goikoetxeak, bere aldetik, edukien laburpena eginez nabarmendu zuen gaur egungo egoera soziolinguistikoa aurretik izandako gertakarien ondorioa dela. “Egungo neurketa linguistikoek momentuko egoeraren argazki bat ematen dute, baina argazki horiek ulertzeko ezinbestekoa da lehendik gertatu dena ezagutu eta ulertzea”. Datu historikoen irakurtza soziolinguistikoa egin du Goikoetxeak liburuan eta aurkezpenean horren gaineko zertzelada nagusiak azaldu zituen.

Ikus-entzunezkoa

Lana osorik irakurtzeko aukera dago jadanik, www.deba.eus atarian. Liburuan oinarritutako ikus-entzunezkoa egingo dutela ere iragarri dute, jendeak modu arin eta didaktikoagoan herriaren historia ezagutu dezan.

Kasinoaren etorkizunaz

Bolo-bolo dabil azkenaldian Kasinoa, edo eraikinaren etorkizuna, hobeto esanda. 1932. urteaz geroztik hondartzako pasealekuan izan dugun eraikina eraitsi egingo dutela jakiteak piztu du eztabaida. Zer egingo da bertan? Zer erabilera izango du aurrerantzean? Eta zer itxura? **Berriketan-ek Udalera jo du informazio bila. Hona hemen Debako Udaletik helarazitako prentsa oharra:**

“Duela urte batzuetatik utzita dagoen Kasinoari buruzko kontsultak jaso ditu Udalak. Etorkizunean izan ditzakeen erabileraren gaineko kontsultak izan dira, eraikina erosi duen enpresa eraikitzaileak eginak.

2007an onartutako Debaren hiri ordenamenduan Kasinoa ez da agertzen interes arkitektoniko edo paisajistikoa gabes- tu beharreko eraikinaren artean eta, gaur egun, ordenamendu hori da legez indarrean dagoena. Eraikinaren kanpoko irudia eta gaur egun duen bolumentria mantentzea aholkatzen da, besterik ez.

Udala urtebete inguru aritu da kontu honekin, eraikina ahalik eta ondoen kontserba zedin eta hondartza aurreko eraikin multzoaren irudia ahalik eta gehien mantendu zedin. Kontsultak egin ditu Foru Aldundiko zein Eusko Jaurlaritzako Ondare Historikoaren departamenduetan eta biek ala biek gomendatu dute, azkenean, Udalak hartu duen erabaki berbera.

Udal arkitektoak ikuskapen zehatza egin zuen eraikinaren egoera zein zen jaki-

teko: txostenean jasotakoaren arabera, egituraren egoera eta kanpoko hormen zimenduena kaxkarra da eta, ondorioz, barrualdea eta kanpoko hormak kontserbatzea ezinezkoa da.

Eraikina eraitsi egingo da eta Udalak agindu die eraikin berriaren sustatzaileei Kasinoa berreraikitzea kanpoko irudi berberekin: lehengo bolumentria, diseinu, material, harri eta koloreekin. Gainera, sustatzaileek, derrigorrez laga beharko dute beheko solairua taberna-jatetxe izateko.

Beharrezkotzat jo da taberna-jatetxea kalearen maila berean jartzea; lokalerako irisgarritasunari begira erabilera errazteko eta hondartzako pasealekuarekin lotzeko. Beheko solairu horren gainean etxebizitzaren solairu bi eraikiko dira gaur egungo Kasinoaren kanpoaldearen diseinu berarekin eta teiltatu-hegalaren altuera ere mantenduz.

Beste konponbide bideragarriarik ez dagoela konbentzituratu dago udala, eraikina degradatzen joan eta aurri bihurtzea,



erortzeko arriskuan egotea, nahi ez badugu behintzat (beste bat hondartzako pasealekuan).

Eraikinaren erabilera horiek xedatzeko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualea egin zen, 2017ko maiatzaren 25eko Udal Plenoan aho batez onartu zena. Erabaki hura jendaurrean erakutsita, alegazio bakarra izan zuen, enpresa sustatzailearena hain zuzen ere, testu akats bat zela-eta.

Egun, Udalak ez du, oraindik, egungo Kasinoa botatzeko lizentziarik eman”.

Debako Udala

Energiaren Eskualdeko Behatokia jarri du abian Debabarrenak

Energiaren Behatokia ezarri duen EAEko bigarren eskualdea da Debabarrena eta sei herriri eskainiko die zerbitzua: Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluze. Herri horietako udalek eta Debegesak jarri dute martxan proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Sailaren laguntzarekin.

Behatokia informazio eta komunikazio teknologietan oinarritzen den plata-

forma berritzailea da; horniduren kudeaketa eta udal instalazioen energia kontsumoen azterketa egitea ahalbidetzen du (argiteria publikoa, eskailera mekanikoak, udal eraikinak...). Erreminta honekin jasagarritasunaren aldeko urratsak emateaz gain, aurrezpena eta eraginkortasun ekonomikoa, energetikoa eta ingurumenekoa neurtu ahal izango dira.

Sei udalerrietan energiaren kudeaketarako SIE software bat ezarri da (Energia

Informazioaren Sistema). Debegesako arduradunek esandakoaren arabera, “inbertsiorik egin beharrik gabeko neurriak bakarrik hartuz, Behatokiak 74.073 euroko aurrezpen potentziala ikusi du, energia faktura osoaren %4,3 suposatzen duena”.

Behatokiarekin batera, Debabarrenak Energia Ataria ere sortu du, herritarrek informazioa “gardentasunez” jaso ahal izateko (www.debegesa.eus-en sarbidea).

Debak 220 langaberekin bukatu zuen urtea

Debabarrenean 3.147 langabe kontatu zituzten abenduan, %11,89, eta Debak 220 langaberekin amaitu zuen urtea (%8,26).

Lanbidek emandako azken datuen arabera, Soraluze du eskualdeko langabezia tasarik altuena: %15,05 (282 langabeturekin). Eta Eibar da bigarren herri kaltetuena zerrendan, 1.790 langabeturekin, edo %14,05eko tasarekin.

Elgoibarko kasuan, langabeziaren tasa txikiagoa da: %9,96

(551 langabe). Mendaron, %9,61etik %9,20ra jaitsi da tasa (91 langabe kontatu zituzten abenduan). Ermuan 816 langabe daude, eta Mallabian, berriz, 35.

Mutrikun eta Deban ere gora egin du langabezia, eskualdeko joera orokorrarekin bat eginez. Mutrikun, langabezia tasa %8koa da (213 langaberekin), eta Deban 220 langabe kontatu zituzten urte amaieran -123 emakumezko eta 97 gizonezko-.

Indar Unanuek irabazi du Sorginetxe Big Wave Erronka

18 surflari aritu dira olatu erraldoien txapelketan



Ander Salegi

Urtarrilaren 18an (osteguna) jokatu zen Sorginetxe Big Wave Erronka. Urtarrilaren 8tik martxoaren 31ra artean finkatu zen euskal surflarien arteko olatu handien txapelketa jokatzeko epea, eta hilaren 18rako aurreikusitako itsas baldintza egokien arabera zehaztu zen azkenean probaren data zehatza.

18 surflari Open kategorian aritu ziren lehian Sorginetxen eta nagusitasun zarauztarra izan zen proban. Indar Unanue izan zen garaile, eta haren atzetik sailkatu ziren Aritz Aranburu eta Ibon Amatriain, bigarren eta hirugarren postuan, hurrenez hurren. Laugarren postuan Kosme Fernandez mundakarra sailkatu zen, bosgarren Ander Mendiguren sopolaztarra gelditu zen eta seigarren postua Iker Amatriaintzat izan zen.

Olatu handienaren saria ere Indar Unanuek eskuratu zuen.

Debako Zurrumbilo elkarteko bi surfista aritu ziren Sorginetxen: Oier

Bartolome eta Eritz Urrosolo. Txapelketako parte-hartzaileen artean, Gipuzkoako Surf Federazioko olatu handietako komisiotik sei kide etorri ziren, beste sei Bizkaiko Surf Federazioko olatu handietako komisiotik, eta lau *Wildcard* edo gonbidatu EHSFtik.

Euskal Herriko Surf Federazioak (EHSF) eta Yako Surf Eskolak antolatu dute Sorginetxe Big Wave Erronka, Debako Udalaren laguntzarekin.

Olatu handietan ibiltzen diren euskal surflarien garapena bilatzea du helburu txapelketa honek, baita modalitate honetako sailkapen bat burutzea ere. Eta sailkapen hori etorkizunean sor daitezkeen hautaketa prozesuetarako balia dezaketela azaldu du EHSFk. Era berean, lehia honen bitartez, antolatzaileek olatu handietako surflari berriak ezagutzera eman nahi dituzte eta, bide batez, gaur egun ezagunak direnen oihartzuna handitzen lagundu.



Ander Salegi



IGOR LARRAÑAGA

Semaforoa gorri

Gaurkoan ere kotxean sartu eta eguneroko errutinaren morroi, bazkaritarako tuperra, fruta eta atzoko ogi zatia, hutsik doan kopilotoaren aulkian uzten ditut. Giltza sartu, eta motorraren kalentadorak berotu aurretik, gogora etortzen zaizkit duela urte batzuk neguko egun hotzetan, kotxeak abiarazteko izaten zituen zailtasun eta ezinak, eta kotxea erabil ezin horrek sortzen zizkidan egonezinak. Nahiz eta kotxea konpondu eta orain garbi asko abiarazten dudana, iraganen bizi izandako momentu desatseginen oroitzapenek sortzen dizkidan ezinegonak apaldu eta haietara ohitu arren, hortxe diraute.

Gaurkoan ere euri zaparradak dira noiznahi, hasi bezain pronto atertzen duen eguraldi petral hori, atzo eta etzi bezalaxe. Horrelako egunetan nahiago izaten dut musika edota irratirik gabe gidatzea, oso gustukoa izaten dut eta euriak kotxea jotzean sortzen duen soina. 4-5 urte nituenetik gogoratzen dut nola sentiarazten ninduen soinu horrek, zeharo erlaxatu eta plazera sentiarazten, gorputzeko azal zati ezberdinetan zehar zirrara atsegin bat eragiten dit eta. Soinu horrek gogoratzen ez dudana oroitzapen atseginen bati lotuta egon behar duela pentsatzen dut, eta oroitu ordez sortu zizkidan zirrarak biziberritzen ditudala.

Gaurkoan ere erreperidera iritsi bezain azkar, eta Aterpe pareko semaforo gorrian gelditu orduko, iraganeko bi oroitzapenek nire aldartea erabat aldatu didate. Iraganen izandako egoera batek gaur egunean ere nola eragiten duen konturatzeak norbere burua ezagutzen laguntzen dit.

Literatur lanak aitona-amonentzat

Badira urte batzuk, ez dakit ziur zenbat, Gabon aurreko festa-txo honetan parte hartzea tokatu zaidala. Benetan ohore handizat daukat zuen adineko idazle berrien lanak irakurri eta kalifikatu ahal izatea. Baina buruhausterik ere badakar eginkizun honek berekin. Bai, irakurri eta lan bakoitzari balio konparatibo bat aitortzen diot. Hori ez da hain zaila gertatzen; baina ez da nahikoa: neure buruari azaldu behar diot zein arrazoi izan ditudan lan bakoitzari bere balioa izendatzeko unean. Eta hori ez da hain erraza.

Kezka hori buruan neramala ireki nuen Zaharren Biltokitik jaso nuen kartazal lodia.

Atera nituen zuen idazlanak eta, Sorpresa!, uste gabeko itxura zekarren lehenbiziko idazlanak: "Nire Amonaren Istorioa", "h"rik gabe, noski. Aurreko urteetan aitona-amonai gutunak jaso izan ditugu, bakoitzak bere aitona-amonekin izan zituen bizipenak kontatzen zituela. "Istorio" hitz honek lehiaketari eremu zabalago baterako bidea ireki ote zion pentsatzera ekarri ninduen.

Irakurri nuen, ba, lehenbiziko hori eta, egia, ez zen gutuna, istorioa kontatzera zetorren eta ez bere amonari, guri baizik.

Irakurri nuen bigarrena, hirugarrena... Irakurri nituen azkenerrainoko guztiak eta... Bai, eremu zabalagoan barreiatu zarete aurtengo idazleok.

Ez duzue gutunik idatzi; istorioak idatzi dituzue; era askotako istorioak: ipuinak, kronikak, esker-on agiri hunkigarri olerki itxurakoak. Egoera zehatzak kontatu dizkiguzue: pozaldiak, dramak, larrialdiak, tragediak...; guztiak maitasun giro ez-tian emanak.

Atseginez irakurri ditudala aitortu behar. Gainera, nabarmen ikusi dugu irakasleen aholku jakintsuek ere arrakasta txalogarria



lortu dutela zuen lantxoei esker. Doakie, beraz, nire hitz ia mutu hauen txalo-zaparrada isila.

Hauek honela, hemen doazkizue aurtengo lehiaketan irabazle suertatu diren idazlanen izenburuak eta idazleen izen-abizenak:

"Nire amume". Amumaren biografia laburra egin digu: bere izateko era, ohiturak, nekeak eta pozak garbi azalduz. 3. saria merezi izan du. Idazlea: Janire Prieto.

"Mel". Ipuin polita da. Bere hiru zati nagusiak ondo zehaztuak dakartzala: sarrera, muina, bere arazo eta guzti, eta, bukaera, arazoa konpontzen duela. 2. saria merezi izan du. Idazlea: Nadia Peralvo.

"Ohartu naiz". Istorio autobiografiko hunkigarria da. Hiru urteko haurra zen eta aitonaaren minbiziak larriki aztoratu zuen. Gurasoen isiltasunak aitonaaren heriotza urtebetez ezkutatu zion, "Maite zaitut!" esateko aukera ukatuz. 1. saria merezi du. Idazlea: Ainhize Azkarraga.

Beste bi lanek AIPAMEN BEREZIA merezi dutela ikusi dut, puntuetan irabazleengandik oso hurbil geratu direlako:

"Nire amama". Idazlea: Ibai Perez. Txalo handi bat.

"Laura". Idazlea: Magi Urkiri. Txalo-zaparrada bat.

Lukax Dorronsoro

Ainhize Azkarraga

1. saria: "Ohartu naiz"

Txikia nintzanean gertatutako istorio bat kontatuko dut. Momentuan ez nuen kontuan izan, baina orain, handi egin naizela, horretaz pentsatzeak bakarrik negargura ematen dit.

Hiru urte nituen bakarrik, eta badakit adin horretan gauzetaz ohartzea ez dela erraza, aitona gaixorik dagoela ulertzea gehienbat. Nire aitona nire amonarekin bizi zen, biak elkarrekin poz-pez, amamari gizona gaixotu zitzaion arte. Ni askotan joaten nintzen nire aitona-amonaren etxera, beraiekin egotea gustuko nuen eta. Baina behin atetik sartu nintzanean nire aitona ikusi nuen sukaldean, ez-tulka.

-Amatxo, aitita gaixorik dago?-galdetzen nuen beti.

Baina nire amak ez zidan erantzuten. Kezka aurpegia jartzen zuen beti hori galdetzen nion bakoitzean. Kontua da nire aitona minbizi zeukala, eta noski, hori oso gogorra zen nire familiarentzat, eta are gogorragoa hiru urteko neskatila bati kontatzea.

Asteak pasa ahala aitona geroz eta okerrago ikusten nuen, eta ilea morea bihurtu zitzaion. Bere ilea gogorra zen, eta minbiziaren tratamenduak ilea, erorarazi beharrean, more-morea jarri zion.

Egun batean nire amonaren etxera joan nintzen aitona bisitatzen. Baina bera ez zegoen betiko sofan eserita. Ez zegoen ohean etzanda, eta ez zegoen sukaldean. Orduan toki ezezagun batera eraman ninduen amak kotxean. Pasillo luzeak eta jende asko zegoen bankuetan eserita, itxaroten. Gela batera sartu ginen, eta han zegoen aitona, lo. Pila bat ebakuntza egin zizkieten, baina ez zen sendatzen.

Denbora luze bat pasatu zen, eta ni nire aitona ahaztu egin nintzen. Sendatu zela uste nuen, eta orduan garrantzia kendu nion. Urte bat pasa zen:

-Ama, aspaldi ez dudala aitona ikusi, non dago?

Eta orduan nire amak dena kontatu zidan. Aitona aspaldi hil zela, eta ni ez hartzeko, bere

negarraldi guztiak ezkutuan egin zituela, eta nire aurrean pozik zegoela antzeztu zuela.

Ez nuen negarrik egin, baina aldi berean, nire bihotza mila zatitan apurtu zen. "Nola da posible zure aitona ahaztea?", galdetzen nion nire buruari, haserre bizian. "Zergatik ez nituen pasatu bere bizitzako azkenengo momentuak berarekin?"

Orduan ohartu nintzen, zein garrantzitsuak diren aitona-amonak. Konturatu nintzen zein garrantzitsua zen nire aitona niretzat, baina tristea da joan denean ohartzea.

Orain batzuetan nire amonarekin egoten naiz aitona buruz hitz egiten, eta esaten dit berarekin asko jolasten nuela, asko pentsatzen nuela berarengan eta beti nahi nuela aitonaekin egon. Askotan errepikatzen dit asko maite nuela. Zoritzarrez, hori ezin izan nion esan.

Bizitzak erakutsi dit maite dituzun pertsonen "maite zaitut" esan behar zaiela, ez baitakizu noiz izango den esaldi hori esan ahalko diezun azkenengo eguna.

2. saria: "Mel"

Nadia Peralvo

Bazen behin amama bat Mel izenekoa. 78 urte zituen, ile motza eta zuria zuen, begi berdeak, sudur eta aho finak, belarri txikiak eta betaurreko marroiak; karratu formakoak. Bera oso zoraturia zegoen, zentzu onean, dibertigarria eta inajinazio handikoa zen.

Egunero, ogia erostera joaten zenean, gizon zahar bat ikusten zuen. Gizon hau Lukas deitzen zen eta jatorra eta alai zira zira.

Egun batean, Lukas Mel begi bat kluskatu zion, eta Mel, hori ikustean, beregan hurbildu zen eta hitz egiten hasi zitzaion. Bi nerabe ematen zuten. Elkarrizketa bukatu ondoren, Melen etxera joan ziren, kafe bat hartzera. Denbora tarte txikia elkarrekin pasatu arren, seko maitemindu ziren.

Mel ogia erostera joaten zenean, beti bezala, han Lukas ikusten jarraitzen zuen; baina egun batean neskatxa txiki batekin ikusi zuen, 6 urte ingurukoa zirudiena. Ite horia, begi marroiak, sudur fin eta txiki bat, aho fina eta belarri handiak zituen.

Mel intrigatuta, Lukasengana joan zen eta, ume hura zein zen galdetu zion.

Lukas bere bere zela erantzun zuen. Melek bere etxera eraman zituen. Etxean galleta batzuk jan zituzten, baita Kola Kao bat ere.

Lukas momentu batean komunera joan zen eta Mel Mireiarekin bakarrik geratu zen. Egoera oso deserosoa zirudien. Orduan Melek elkarrizketa berak hasi erabaki zuen, oso deseroso zegoen eta. Mireiak Melek esaten zuen guztiari gaizki erantzuten zion, hitz desegokiekien.

Mireia kokoteraino zegoen galderez eta azkenean, bultzatu egin zion Meli, ezin zuen gehiago jasan eta. Mel lurrera jausi zen eta odola hasi zitzaion sudurretik. Mareatzen hasi zen, ikusmena galtzen, oxigeno gabe geratzen...

Hiltzen zegoela zirudien.

Lukas komunitate bueltatu zenean, hantxe ikusi zuen Mel lurtean botata, hilda bezala. Mireiari zer gertatu zen galdetu zion eta honek "nahi gabe" bultzatu zuela eta horren eraginez Melek egoera horretan bukatu zuela kontatu zion.

Anbulantzia iritsi zen eta Mel ospitalera eraman zuten.

Hurrengo egunean, Lukas dei bat jaso zuen, eta Mel ondo zegoela esan zioten. Mireiak bere kulpak izan zela aitortu zuen eta zigor handi bat jarri zioten, baita Meleri barkamena eskatzea ere. Mel bueltatzerakoan dena normaltasunera bueltatu zen eta denak poz-pozik bizi izan ziren.

3. saria: "Nire amume"

Janire Prieto

Nire amonari amume deitzen diot, ondarrutarra delako. Daukadan amona bakarra da, eta ez daukat aitona. Ez dut askotan ikusten, nahiz eta ondarrutarra izan, Los Alcázaresen (Murcian) bizi delako gaur egun. Noizean behin etortzen da Euskal Herrira nire osaba eta izekoren etxera, zehazki Ispasterrean.

Nire amumek gaztea zenean bere anai-arrebak zaintzen zituen, alaba zaharrena zelako. Txiki-txikitatik hasi zen lanean, antxoak etab. latetan sartzen. Dena den, aurrerago lan desberdinetan ere lan egin zuen.

Nahiz eta euria edo hotza egin, bere amak gonak edo soinekoak janztera derrigortzen zuen. Bere anaiaren galtzak hartzen zituen, eta etxetik irteteko gonarekin irteten zen, baina bere ama aurrean ez zegoenean, prakak janzten zituen.

Gaztea zenean arrantza bat ezagutu zuen eta beraz maitemindu zen. Bi ume zoragarri izan zituzten, bat nire aita da, eta bestea nire izeko, "ixiko" deitzen diodana. Bere gizona faltan botatzen zuen askotan arrantzara joaten zelako denbora askoan.

Orain dela 13 urte gutxi gorabehera, bere gizona hil egin zen, gaixorik zegoelako, ni nire amaren sabelean nengoenean. Beraz, ez dut nire aitona ezagutzeko aukerarik edo zorterik izan.

Bai, zortea diot, izan ere, ezagutu izan banu, itsasoko milaka abentura kontatuko zizkidan agian berak. Askotan egiten dut neure baitan jolas aitona nolakoa izango zen inajinatuz. Baina errealitatea bestelakoa da, zer egingo diogu!

Amumek bizikleta bat dauka, hiru erruberrak eta motorrarekin. Orain dela urte batzuk, nire aita, nire anaia eta ni Los Alcázaresen geundela, autobusean Debara etorri behar ginen. Taxian joan ginen autobus geltokira eta berak esan zuen bizikletan joango zela. Autobusa iritsi zen eta nire amonaren arrastorik ez zegoen. Autobusean sartu behar izan genuen eta autobusa martxan hasi zen. Nire amume ez zenez agertu, telefonoz deitu behar izan genion, eta bizikletan zihoala erori egin zela esan zigun, eta ezin izan zela etorri gu agurtzera.

Beste egun batean ere bizikletan zihoala erori egin zen eta hanketan beltzuneak egin zituen. Ez da geldi egoteko, ez, nire amume!

Amume asko maite dut, beti berarekin barrezka nago eta laster gehiagotan ikusiko dut, Ondarrun etxea erosiko duelako. Harro nago nire amumek, den bezalakoa delako: bizi, alai, baina goxoa, zintzoa... Pozik egoteko moduan nago, beraz, neuk ere hor nonbait bere geneak ere izango ditut eta!

Irakurketa Kluba jarriko da martxan Ostolaza Udal Liburutegian

Irakurketa Kluba abiatuko da udal liburutegian otsailaren 28an. Bakarkako irakurketa taldean partekatzea bilatzen du ekimenak eta saioak hilean behin izango dira, Yolanda Arrieta idazleak gidatuta. Hilabete batean euskaraz irakurritako liburua landuko da eta hurrengoan, berriz, gaztelaniaz irakurritakoa. Partaide bakoitzak bere kontura lortu beharko du saio bakoitzean landuko den liburua.

Udal liburutegiak jakinarazi duenez, Irakurketa Klubean parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena, liburutegian -16 urtetik gorakoek parte hartu dezakete ekimenean-. Era berean, dagoeneko iragarri dituzte ikasurte honetan landuko diren liburuen izenburuak eta datak:

***Otsailak 28: Jenisjoplin.**

Uxue Alberdi. (Susa, 2017).

***Martxoak 21: Un hijo.**

Alejandro Palomas. (La Galera, 2015)

***Apirilak 25: Bihotz handiegia.**

Eider Rodriguez. (Susa, 2017)

***Maiatzak 30: Buda en el ático.**

Julie Otsuka. (Duomo, 2012).

Saioak hilabetean behin izango dira, asteazkenetan, liburutegian bertan, eta ordu eta erdiko iraupena izango dute -19:00etatik 20:30era-.



Lehen bi saioetan landuko diren liburuen azalak





Irudiak: Ander Salegi eta erredakzio taldea

Berriketan Gaztea

2018ko urtarrila
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua

Ekintza ezberdinak Euskararen Eguna Mendatan ere ospatzeko

Abenduaren 3an ospatu zen Euskararen Eguna, Deban, Euskal Herrian eta euskara bizi-bizi dagoen munduko hainbat txokotan. Igandea zenez, data horri aurrea hartu genion Mendatan eta, azaroaren 27tik abenduaren 1era arte, denetariko ekintzak egin genituen, euskaldunon hizkuntzaren eguna ospatzeko. Euskara Batzordeko irakasleek eta ikasleek antolatu zituzten ekintzak eta ekitaldiak.

Astean zehar, ETBko "Tribuaren berbak" saioan oinarritutako "Eta guk zer" sekuentzia landu zen gela guztietan, Euskara arloko saio batean. Euskararen erabileraren neurketa ere egin genuen,

jolas-orduetan eta atsedendaldietan. Neurketaren emaitzak honako hauek izan ziren: ikasleen %59k euskaraz egin zuen eta %41ek gaztelaniaz.

Abenduaren 1ean, "Euskara ari du" lelopean ikasle bakoitzak ur tanta batean hitz, esaera, esamoldearen bat... idatzi zuen eta paperezko ur tanta guztiak gune batean zintzilikatu genituen, ikastetxeko sarreran. Ekintza hau ikastetxeko talde guztietan egin zen, goizeko ordu desberdinetan.

Maila bakoitzean, ikasleok honako ekintzak egin genituen: **1. mailan:** 1A- Debako, Itziarko euskalkian hitz, esaldi eta espresioak. 1B- Hitzak (norberak

gustuko duen hitz bat alde bakoitzean). **2. mailan:** 2A- Esamoldeak. 2B- Irainak, haserre espresioak... 2C- Kirolak, kirol hitz bereziak... **3. mailan:** 3A- Piropoak. 3B- Euskal mitologiako pertsonaiak. 3C- Herriak, mendiak, ibaiak... **4. mailan:** 4A- Abestien zati edo estribiloak. 4B- Txiste laburrak edo Zuberoako hitzak, atzean sinonimo batekin... 4C- Asmakizunak...

Irakasleek eta ikasleok primeran pasa genuen, ekintza guztietan parte hartuz. Baina esan beharra dago euskarak ez duela egun bat soilik, urteko beste 364 egunak ere hor daudela mintzamenari astindua emateko.

Irakurketa dinamizatze talerra

Azaroaren 28an eta abenduaren 4an, 2. mailako ikasleek irakurketa dinamizatze taler bat izan zuten, Ostolaza udal liburutegian eta Mendata ikastetxeko liburutegian. Tailer hau Yolanda Arrieta idazleak gidatu zuen eta 2. mailako hiru taldeekin ordubeteko bina saio egin zituen; guztira sei saio izan ziren.

Taileraren helburua ikasleei, modu praktikoa eta aktiboa baten bidez, liburu baten irakurketa aberasteko zenbait



bide agertzea zen.

Metodologiari dagokionez, praktikatik teoriara salto egin zuten, etenik gabe. Baliabide ezberdinak erabili zituzten,

liburu baten irakurketa prozesua ahalik eta dinamikoena izan zedin, hala nola antzerkia, idazketa sortzailea, irakurketa ozena edota irakurketa dialogikoa.

Narrazioan gai hauek landu ziren: pertsonaiak, narratzaileak, espazioa (tokiak, lekuak), denbora, gaiak eta egiturak. Poesian, berriz, honako gai hauek: ahots narratiboak, erregistroak, barne irudiak, hitzaren eritimoa, emozioak, pertzepzioak...

Istripuen prebentzioari buruzko hitzaldia

DBHko 4.mailako ikasleek istripuen prebentzioari buruzko hitzaldi bat izan zuten azaroaren 28an. AESLEME elkarte-ko osasun langile batek eta zirkulazio istripu baten ondorioz bizkarrezur-muineko lesioa duen pertsona batek eman zuten hitzaldia. Honako gai hauei buruz aritu ziren:

-Istripuen zergatiak eta ezbeharrak

saihesteko modua: segurtasun-uhala eta kaskoa erabiltzea, zirkulazio-arauak betetzea, gidatu behar izatekotan alcohola ez hartzea, arreta galtzea (sakelakoa, musika...).

-Zer egin istripu baten ostean? Lesioak ez areagotzeko, medikuak iritsi arte zauritua ez mugitzea oso garrantzitsua dela azpimarratu zuten.

-Istripuaren ondorioak: istripua izan duen pertsonak eta haren senideek, besteak beste, bizkarrezur-muineko lesioak (paraplegia eta tetraplegia), burezurreko traumatismoa eta arazo fisiko, psikiko eta sozialak jasan behar izaten dituzte.

Hitzaldia amaitutakoan, solasaldia egin zen hizlarien eta ikasleen artean, hauek zituzten zalantzak argitzeko.

Kimetz Etxabe Zubiaurre



“Ezingo nuke hitzez deskribatu txirrinduaren gainean esertzean sentitzen dudun guztia”

Oraingo honetan, hirugarren mailako Kimetz Etxabe ikasleari egin diogu elkarrizketa. Txirrindularitzan aritzen denez, kirol honi buruzko galderak egin dizkiogu. Hona hemen gure galderak eta haren erantzunak:

Nolatan hasi zinen txirrindularitzan?

Txikitatik dut gustuko, nire aitonarekin joaten nintzen lasterketak ikustera eta arreta gehiago ipintzen hasi nintzen. Txikia nintzenez, ez nuen aukerarik izan errepidean ibiltzeko eta, futbola ere gogoko nuenez, futbolekin hasi nintzen. Aukera izan nuen momentuan, futbola utzi eta txirrindularitza munduan sartu nintzen.

Lehen futbolekin aritzen zinen. Ez zitzaizun gogorra egin futbola albo batera uztea?

Hasieran bai, egia esan, baina denborarekin ohartu nintzen txirrindularitza gehiago gustatzen zitzaidala. Hortaz, azkenean ez zitzaidan gogorra egin.

Astean zenbat entrenamendu izaten dituzu?

Lasterketen arabera izaten da hori. Gehienetan, astean bost egunetan.

Zer sentsazio edukitzen duzu bizikletaren gainean zaudenean?

Ezingo nuke hitzez deskribatu bizikleta gainean esertzean sentitzen dudun guztia. Adrenalina, aske nagoela sentitzen dut, nahiz eta kirol arriskutsua izan.

Gogorrak izaten dira entrenamenduak?

Normalean gogorrak izaten dira, baina

lasterketaren aurreko prestaketetan ezin ditugu entrenamendu gogorrak egin. Izan ere, lasterketarako behar dugun energia eduki behar dugu. Hortaz, entrenamendu horiek ez dira gogorrak izaten.

Zer moduzko emaitzak lortzen dituzu lasterketetan?

Lehiatzen naizen kategoriaren arabera izaten da hori (handiekin, adinekoekin...), baina gehienetan lehenengo hamarretako bat izaten naiz.

Edukitzen duzu denborarik egin nahi dituzun beste gauza batzuk egiteko?

Gehienetan ez, entrenamendu batek arratsalde osoa kentzen baitfit.

Zenbat lasterketa izaten dituzu hilabetean?

Azaro erdialdetik abuztu hasierara arte astean bat edo bi: batzuetan lasterketa normalak eta beste batzuetan pistako lasterketak, eta abar.

Zein taldeetan zabilta?

Viveros San Anton. Zumaiako txirrindularitza elkarte taldea da.

Inor joaten al da lasterketetara zu animatzera edo ikustera?

Lagunak eta familiako batzuk ere etorri izan dira.

Inkesta

Zer egin duzu gabonetan?

Gabonak pasa berri ditugunez, hilabete honetako inkestan gai hori izan dugu hizpide. Hona hemen 4. mailako ikasleei egin dizkiegun galderak eta haiek emandako erantzunak:

- 1.- Familiarekin ospatzen dituzu gabonak?
- 2.- Gabon egunean etxez etxe abesten al duzu? Zer asmorekin?
- 3.- Deban pasatzen al dituzu gabonak?
- 4.- "Gabonak" hitza entzutean, zer da burura etortzen zaizun lehenengo gauza?
- 5.- Opariak jasotzeko zintzo portatu zarela uste al duzu?
- 6.- Zer opari espero zenituen?
- 7.- Zer jasotzea gustatuko litzazuke gehien?
- 8.- Gustuko al dituzu gabonak? Zergatik?

Jose Salegi



- 1.- Bai.
- 2.- Bai, giroa alaitzeko.
- 3.- Bai.
- 4.- Gosea, janaria, parranda...
- 5.- Noski.
- 6.- Balio handia duen zerbait.
- 7.- NP motor bat.
- 8.- Bai, denak elkartzen garelako.

Urko Arkoitia



- 1.- Bai.
- 2.- Bai, dirua lortzeko eta ondo pasatzeko.
- 3.- Bai.
- 4.- Oporrak eta poztasuna.
- 5.- Bai.
- 6.- Salomonak.
- 7.- Etxe berri bat.
- 8.- Bai, opariengatik.

Jose Valenciano



- 1.- Bai.
- 2.- Ez.
- 3.- Itziarren.
- 4.- Oporrak.
- 5.- Beti.
- 6.- Dirua.
- 7.- Dirua.
- 8.- Bai, opariengatik.

Denbora-Pasak

Aurkitu zazpi ezberdintasunak



Asmakizuna

Izanagatik txikia
gela handira sartzean
betetzen du guztia.

Zer da?

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala

Ane Txurruka



- 1.- Bai.
- 2.- Bai, aurtengo ikasbidaiarako dirua lortzeko.
- 3.- Bai, noski.
- 4.- Familia.
- 5.- Ni? Beti.
- 6.- Ez dakit.
- 7.- Arropa.
- 8.- Asko.

Jon Txurruka



- 1.- Bai.
- 2.- Bai, ikasbidaiarako dirua lortzeko.
- 3.- Bai.
- 4.- Elur malutak.
- 5.- Noski.
- 6.- Nik eskatu dudana.
- 7.- Play-rako jokoak.
- 8.- Bai, oporreatatik gehienbat.

Maidor Corrius



- 1.- Beti.
- 2.- Bai, ikasbidaiarako dirua lortzeko.
- 3.- Bai.
- 4.- Opariak eta familia.
- 5.- Bai.
- 6.- Mugikorra.
- 7.- Mugikorra, noski.
- 8.- Bai.

Elara Oartzabal



- 1.- Noski baietz.
- 2.- Ikasbidaiarako dirua lortzeko.
- 3.- Bai.
- 4.- Familia eta opariak gehienbat.
- 5.- Bai.
- 6.- Nik eskatutakoa.
- 7.- Musika entzuteko kaskoak.
- 8.- Bai, familiaren elkartasuna eta opariengatik.

Intra Sudupe



- 1.- Bai.
- 2.- Bai, ikasbidaiarako dirua lortzeko.
- 3.- Bai.
- 4.- Elkartasuna.
- 5.- Nahiko ondo.
- 6.- Arropa.
- 7.- Zapatila pare bat.
- 8.- Bai, asko.

Sudokua

5	3			7				
6			1	9	5			
	9	8					6	
8				6				3
4			8		3			1
7				2				6
	6					2	8	
			4	1	9			5
				8			7	9

Txistea

Bi emakume elkartu dira
eta batak besteari zera esan dio:

-Nire senarra aingeru bat da!

-Hau zorrea!- erantzun dio besteak-.

Nirea oraindik ere bizirik dago!



Prentsa talerra 2017-2018

Goretti Unanue, Lorena Ladera, Elene Molina, Paula Del Olmo,
Kimetz Etxabe, Enaitz Goikoetxea, Unax Arrizabalaga, Itziar Egaña,
Maria Mendoza, Naroa Etxeberria, Alaitz Albizu eta Unax Urteaga.

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

URTARRILAK 26, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan.
-22:00. **Euskal Herriko X. Mus Txapelketa.** Debako kanporaketa, Arrano Elkartearen.

URTARRILAK 27, LARUNBATA

-10:30. **Geoparkeko bisita gidatua Lasturko plazan.** Errota, taloak eta herri-jolasak familia osoarentzat. Ezinbestekoa da aurrez erreserba egitea. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.com.

URTARRILAK 28, IGANDEA

-10:00. **Emakumezkoen Pala Txapelketa Azkarra,** Aldats pilotalekuan. Aurrez eman behar da izena: 617923712/682361052.

OTSAILAK 3, LARUNBATA

-**San Blas Eguna.**
-19:00. **Pingtxo-Pongte** (pintxopote eta ping pong txapelketa), Debako Gaztetxean.

OTSAILAK 4, IGANDEA

-**Santa Ageda bezpera.**

OTSAILAK 9-13

-**Inauteriak 2018.** Egitarau berezia antolatuko da.

OTSAILAK 17, LARUNBATA

-11:00. **Bisita gidatua: Flysch Beltza.** Informazio gehiagorako jo Turismo Bulegora.

OTSAILAK 18, IGANDEA

-8:30. **Mendi iteera,** Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta: Nafarroa.

Ikastaroak KZgunean

KZgunea arratsaldean arituko da urtarrilean, eta goizez otsailean. Hainbat ikastaro eskainiko dira: Google Apps, oinarritzko internet, Ofimatika-Software Librea, sare sozialak... Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo www.kzgunea.eus ataria.

Hezeguneen Eguna

-Otsailaren 2an **Hezeguneen Nazioarteko Eguna dela eta,** Debanaturak hitzordu berezia antolatu du otsailaren 3rako (larunbata), "Casacampo zain dezagun!" lelopean.
11:00etan emango zaio hasiera ekimenari, Casacampon bertan. Ingurumen boluntariotzako jarduerak egingo dira: ibilbide gidatua, garbiketa, zuhaitz landaketa eta landare inbaditzaileen kontrola. Izen-emateak: debanatura@hotmail.com edo 695783656.

Odola emateko deialdia

Odol-transfusioa eskubide bat baldin bada....

Odola emateak erantzukizun partekatua izan beharko luke

Datorren otsailaren 16an (ostirala) odola emateko saio berri bat burutuko da, arratsaldean, Luzaro ikastetxean (Ifar kalean). Debako Odol Emale Elkarteak antolatu du saioa eta bertan parte hartzeko deialdia egin du.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **otsailak 2, 3, 4, 12, 13, 14, 15.**

Burgoa Zuazo: **urtarrilak 29, 30, 31.**
otsailak 1, 16, 17, 18.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: otsailak 3 eta 10

BURGOA ZUAZO: urtarrilak 27 eta otsailak 17.

9:30 - 13:00

Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN

Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



MARIJE CASTRO IRIBARREN

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarra

MASAJISTA

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 23
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jari zure publizitatea
Berrietan aldizkarian!

Zuhatzia

943 191 383
berrieketanzuhatzia.com



s@so iko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietetika
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 4.2 s@soiko@hotmail.com

G



JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

50 URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauean tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



k
kutxabank

Hazirik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com



Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



A
D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482



2018an ere EUSKARAZ biziko gara

17-18 IKASTURTEA

Matrikulaldia zabalik

Izena emateko epea
otsailaren 9ra arte.

Langabetu, ikasle eta gurasoek
Matrikula ERDIA

Bekatze sistema ikasturte bukaeran

Etor zaitez eta informazio
guztia emango dizugu.

DEBA: 15:00 - 19:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Ifar-kalea, 2 – Tel.: 943 742 731(Elgoibar)
943 192 236 (Deba)

udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus



UDAL
EUSKALTEGIAK

euskara klaseak • clases de euskara

www.udaleuskaltegiak.eus

